



ZEGAMAKO UDALA

Zure ezagupen eta ondorioetarako **JAKINARAZTEN DIZUT**, Alkateak, 2018ko azaroaren 29an, honako ebazpena hartu duela:

Zegamako Udaleko Lan Eskaintza Publikoan barneratutako "herri baliabide, pertsonala eta kontuen administrariaren " plaza hornitzeko hautaketa prozesua ikusirik.

Epaimahaiak 2018ko urriaren 2an egindako bilkuran emandako izendapen-proposamena jarraituz.

Horren arabera, hautagaiak lortutako azken kalifikazioen arabera (horien aurka erreklamazioak aurkeztu ez zirenez behin betiko izaera dutenak), lehenengo bi hautagaiak lanpostua betetzeko aukerari uko eginez idatzia aurkeztu dute. Hori horrela, lan-poltsa eratzearen ondorioetarako, bi lehiakide horiek lan poltsaren azken postuetara pasako lirateke.

Hirugarren postuan dagoen Lierni Asurabarrena Zipitria hautagaiak, lanpostua betetzeko borondatea adierazi du.

Lehiakideak, lehiaketa-oposizioan esku hartzeko 3. Oinarrian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu du.

Horren arabera, eta indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau erabakitzen dut:

Lehena. Hautaketa prozesua burututa Epaimahai kalifikatzaileak proposaturiko eran Lierni Asurabarrena Zipitria anderea, Zegamako Udaleko Lan Eskaintza Publikoan barneratutako "herri baliabide, pertsonala eta kontuen administrari" lanpostuan praktiketako funtzionario izendatzea.

Bigarrena. Praktiketarako epealdiaren iraupena sei (6) hilabetekoa izango da. Denbora horretan eraginkor burutu beharko ditu, eta izaera baztertzaila izango du. Txosten bat emango da praktika aldia ebaluatzeko oinarrietan zehaztutako eran.

Hirugarrena. Praktiketako Funtzionario izendapenak 2018ko abenduaren 3tik aurrera izango du administrazio eragina.

Laugarrena. Erabaki hauen berri ematea interesatuei, Kontu-hartzaitza Sailari eta langileen ordezkari, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Era



ZEGAMA KO UDALA

berean, udaleko web gunean, erabaki honen eta hautaketa prozesuaren arabera sortutako lan poltsaren publizitatea emango da.

Herri baliabide, pertsonala eta kontuen administrariaren hautaketa prozesuaren ondorioz sortutako lan poltsa.

Izen-abizenak/ Nombre y apellidos	NAren azkeneko lau zenbakiak/ Cuatro últimas cifras numéricas del DNI
Urrutibeaskoa Elordi, Ianire	4868
Jaka Goikoetxea, Axier	8581
Azurmendi Larrea, María Aranzazu	4827
Vicioso Cano, Martín	6540
Arrizabalaga Gainza, Irantzu	6118
Urreizti Aldalur, Nora	8479

Zegaman, 2018ko azaroaren 29an.

ALKATEAK



Sr.- Joseba Izagirre Arozena

IDAZKARIAK